sistemak jarri beharko dira. Sistema horiek lan horien arduradunek kudeatuko dituzte, horiek izango baitira langileek sistemak zuzen erabiltzearen arduradunak. Bereziki, erregai eta produktuak gordetzearen, makinen mantentze-lanak egitearen edo hondakinak erretzearen ondorioz ez dira inolaz ere efluente kontrolatugabeak sortuko.

Aurrekoaren haritik, berariazko gune bat egokituko da olio-latak, iragazkiak, olioak, pinturak, etab. bezalako hondakin arriskutsuak gordetzeko instalazio estaliak jartzeko, eta horietatik bereiz, hondakin ezarriskutsu eta geldoetarako berariazko edukiontziak jarriko dira. Edukiontzi horiek itxita egongo dira kudeatzaileari entregatu arte, edukia lurrunketagatik edo isurtzeagatik galtzea saihesteko. Era berean, sortutako hondakinak biltzeko gailu estankoak (bidoiak, eta abar) ezarriko dira obran zehar eta izaeraren arabera bereiziko dira. Hori guztia, aipatutako gune garbian aldi baterako biltegiratu aurretik egingo da, eta horretarako, kontratistak dituenak edo Cespa G.R. SA enpresak Mutiloako zabortegiaren instalazioetan dituenak erabiliko dira.

E.1.7.– Paisaia-integrazioa.

Gune berri batean obrak abiatzean, landare-lurra erretiratuko da, pilatuko da edo zuzenean zabortegia zigilatzeko erabiliko da.

E.1.8.– Obraren garbiketa eta akabera.

Obra amaitu ondoren, garbiketa-kanpaina zorrotz bat burutuko da, eta proiektuaren eragin-eremua obra-soberakinez guztiz garbi geratu beharko da.

E.1.9.– Ingurumenari buruzko aholkularitza.

Obra amaitu arte eta horren berme-aldian zehar, obra-zuzendaritzak ingurumenaren, eta oro har, neurri babesle eta zuzentzaileen inguruan kualifikatutako aholkularitza izan beharko du. Gai horiei buruz baldintza-agiriak obra-zuzendaritzari esleitzen dizkion funtzioekin lotutako ebazpenak aholkularitza hori egiten duten adituek txostena egin aurretik eman beharko dira.

E.1.10.– Lan-programa diseinatzea.

Kontratistak ekintza-proposamen xehatu batzuk egin beharko ditu ondorengo azpiataletan adierazitako alderdiei buruz. Proposamen horiek, ebazpen honetan kasu bakoitzerako ezartzen diren irizpideen arabera diseinatuko direnak, obra-zuzendaritzak espresuki onetsi beharko ditu, aurreko atalean aipatutako ingurumen-aholkularitzak aurrez txostena eginda, eta lanak burutzeko programan txertatuko dira. Jarraian zehaztukoak dira agiriak:

berá disponer de sistemas de gestión de los residuos generados en las diferentes labores. Estos sistemas serán gestionados por los encargados de dichas labores, que serán responsables de su correcta utilización por parte de los operarios. En particular, en ningún caso se producirán efluentes incontrolados procedentes del almacenamiento de combustibles y productos, y del mantenimiento de la maquinaria, ni la quema de residuos.

De acuerdo con lo anterior, se procederá al acondicionamiento de una zona específica que comprenda instalaciones cubiertas para el almacenamiento temporal de residuos peligrosos tales como latas de aceites, filtros, aceites, pinturas, etc., habilitando además, y separados de aquéllos, contenedores específicos para residuos no peligrosos e inertes. Dichos contenedores permanecerán cerrados hasta su entrega a gestor en evitación de cualquier pérdida de contenido por derrame o evaporación. Asimismo, a lo largo de la obra se instalarán dispositivos estancos de recogida (bidones, etc.) de los residuos generados, procediéndose a su segregación de acuerdo con su naturaleza, todo ello previo a su almacenamiento temporal en el mencionado punto limpio, utilizando para ello bien los que disponga el contratista o bien los que disponga Cespa G.R., S.A. en sus intalaciones del vertedero de Mutiloa.

E.1.7.– Integración paisajística.

Al inicio de las obras sobre una nueva zona se retirará la tierra vegetal, se acopiará o se utilizará directamente en el sellado del vertedero.

E.1.8.– Limpieza y acabado de obra.

Una vez finalizada la obra se llevará a cabo una rigurosa campaña de limpieza, debiendo quedar el área de influencia del proyecto totalmente limpia de restos de obras.

E.1.9.– Asesoría ambiental.

Hasta la finalización de la obra y durante el período de garantía de la misma, la Dirección de Obra deberá contar con una asesoría cualificada en aspectos ambientales y medidas protectoras y correctoras en general. Las resoluciones de la Dirección de Obra relacionadas con las funciones que le asigne el pliego de condiciones sobre los temas mencionados deberán formularse previo informe de los especialistas que realicen dicha asesoría.

E.1.10.– Diseño del Programa de Trabajos.

El contratista deberá elaborar una serie de propuestas de actuación detalladas en relación con los aspectos que se señalan en los subapartados siguientes. Dichas propuestas, que se diseñarán de acuerdo con los criterios que para cada caso se establecen en esta Resolución, deberán ser objeto de aprobación expresa por parte del Director de Obra previo informe de la Asesoría Ambiental citada en el apartado anterior, y quedarán integradas en el Programa de ejecución de los trabajos. Los documentos son los que se detallan a continuación:

a) Kontratistaren instalazioen guneen kokapenari eta ezaugarrien eta hondakinak aldi baterako gordetzeari buruzko xehetasunak, ebazpen honen E.1.1 atalean aurreikusitakoaren arabera.

b) Ebazpen honen E.1.2 atalak aipatzen dituen interesa duten eta okupazio zuzena aurreikusita ez dagoen landaredi-guneak kartografian xehetasunez seinaleztatzea.

c) Ebazpen honen E.1.3 atalean aurreikusitako solido esekiei eusteko gailuen xehetasunak eta kokapena.

d) Ebazpen honen E.1.4 atalean aurreikusitako ibilgailuak garbitzeko gailuen xehetasunak eta kokapena.

E.1.11.– Jarraibide egokien kontrola obren garapenean zehar.

Obrak garatu bitartean jardunbide egokien kontrol bat egingo da, arreta berezia jarriz eragindako azalerari eta ingurune urtarraren babesari, hondakinen kudeaketari (hondeaketako soberakinak barne), solido esekiei eusteko gailuen funtzionamenduari, hautsa eta zarata egiteari, eta ebazpen honetan adierazitako beste alderdi batzuei.

E.1.12.– Obra-amaierako txostena.

Obra bukatu eta hilabeteko epean, Cespa G.R. SA enpresak obra zuzendaritzak sinatutako obra-amaierako ziurtagiria bidali beharko dio ingurumen organoari. Honako agiriak jaso behar ditu:

– Obren garapenean zehar sortutako gorabeherak.

– Ebazpen honetan jasotako neurri babesle eta zuzentzaileen betetze-maila, nola hondeaketa-materialen kudeaketa zuzena gauzatzeko ingurumen organoak eskatutako neurriena.

– Hala badagokio, obra gauzatu bitartean gehitu diren aldaketak. Xehetasunez dokumentatu beharko dira, segurtasuna edo ingurumenaren babesaren murrizketa ez dutela ekartzen egiaztatuz (dagokionean, kalkulu justifikagarriak). «As built» planoak gehituko dira.

– Obran barrena garatutako ingurumena zaintzeko programaren emaitzen txostena, sortu diren hondeaketa-materialen helmuga zehatza eta kopurua gehituz.

– Eraikitakoaren kalitatearen berme-kontrolaren emaitzak jasotzen dituen txostena, bereziki, geosintetikoen instalazioarena edo in situ trinkotutako material mineralekin egindako hesi geologiko artifizialen instalazioarena.

E.2.– Ontzia egokitzeko eta zabortegiaren iragazgaizte-obrak gauzatzeko baldintzak

a) Detalles acerca de la localización y características de las áreas de instalaciones del Contratista y almacenamiento temporal de residuos, de acuerdo con lo previsto en el apartado E.1.1 de esta Resolución.

b) Señalización en cartografía de detalle de las zonas de vegetación de interés, donde no se prevea una ocupación directa, a las que se refiere el apartado E.1.2. de esta Resolución.

c) Detalles y localización de los dispositivos de retención de sólidos en suspensión previstos en el apartado E.1.3 de esta Resolución.

d) Detalles y localización de los dispositivos de limpieza de vehículos previstos en el apartado E.1.4 de esta Resolución.

E.1.11.– Control de buenas prácticas durante el desarrollo de las obras.

Se llevará a cabo un control de buenas prácticas durante el desarrollo de las obras con especial atención a aspectos como superficie afectada y protección del medio acuático, gestión de residuos, incluyendo sobrantes de excavación, funcionamiento de los dispositivos de retención de sólidos en suspensión, producción de polvo y ruido, y otros aspectos señalados en esta Resolución.

E.1.12.– Informe fin de obra.

En un plazo de un mes tras la finalización de la obra, Cespa G.R. S.A. deberá remitir al órgano ambiental un certificado fin de obra suscrito por la dirección de obra que incluya la siguiente documentación:

– Las eventualidades surgidas durante el desarrollo de las obras.

– El nivel de cumplimiento de las medidas protectoras y correctoras recogidas en esta Resolución, así como de las medidas requeridas por el órgano ambiental para la correcta gestión de los materiales de excavación.

– Las modificaciones que, en su caso, hayan sido introducidas durante la ejecución de la obra, las cuales deben estar documentadas detalladamente, aportando justificación (en su caso cálculos justificativos) de que no suponen una reducción de la seguridad o protección ambiental. Se incluirán planos «as built».

– Informe con los resultados del programa de vigilancia ambiental desarrollado durante la obra, incluyendo el destino concreto y cantidad de los materiales de excavación que se hayan generado.

– Informe con los resultados del control de garantía de calidad constructiva, en especial de la instalación de los geosintéticos o de las barreras geológicas artificiales realizadas con material mineral compactado in situ.

E.2.– Condiciones para la adecuación del vaso y ejecución de las obras de impermeabilización del vertedero.

E.2.1.– Iragazgaizte-obrak hasi aurretik izan beharreko baldintzak.

Cespa G.R. SA enpresak obra zuzendaritza izendatu beharko du, obraren eraikitzailearen menpekotasunik ez duena.

Halaber, zabortegia iragazgaizteko geosintetikoen instalazioaren kalitatea bermatzeko kontrolaz arduratuko den eta sustatzaile eta eraikitzailearekiko menpekotasunik ez duen enpresa izendatu beharko du. Enpresa hori izango da ebazpen honetako E.2.2 atalean ezarritako baldintzak betetzen diren egiaztatzeko arduraduna.

Obrak hasi aurretik, Cespa G.R. SA enpresak zuzendaritza teknikoaren nola iragazgaizterako geosintetikoen instalazioaren kalitatea bermatzeko kontrola egingo duen enpresa arduradunaren izendapenaren berri eman beharko dio ingurumen organoari.

E.2.2.– Zabortegiaren iragazgaiztearen obrak gauzatzeko baldintzak eta eskakizunak.

a) Isuri-ontziaren iragazgaiztearen sekuentzia honakoa izango da (goitik behera):

– Lixibiatuen geruza iragazlea. Material pikordun geruzaz osatuta egon daiteke (lehentasunez, legar edo hondar tamainako agregakin sekundarioak), sastatzearen aurkako geozuntzaren bidez azpiko geomintzaz bereizia, eta gainetik iragazki-geruzaren bidez, edo drainatzaile-geokonposatuaren bidez, edo segida baten bidez: sastatzearen aurkako geozuntza - geosarea - iragazki funtzioa duen geozuntza. Nolanahi ere, geruza iragazle honen igorgarritasuna drainatzearen luzeraren, drainatzearen isurialdearen eta hondakinen eroankortasun hidrauliko asearen arabera kalkulatuko da. Horrela, ezarritako geruzaren igorgarritasunak kalkulatutako igorgarritasunarekiko ≥ 20-ko segurtasun-faktorea (FS) izan dezan eta geruza horren barruan lodiera aseak geruzaren lodiera edo 0,30 m gainditu ez ditzan; txikiena den neurria, hain zuzen ere. Baldintza hau betetzearen justifikazioa geruza iragazleen iragazkortasunean, hodietaraino duten isurialdean eta luzeran eta hondakinen masaren batez besteko iragazkortasunean oinarrituko da. Geruza iragazle hauen oinarriak gutxienez % 2ko isurialdea izango du lixibiatuak biltzeko hodietaraino.

– 2 mm-ko lodiera duen dentsitate altuko polietilenozko (HDPE) geomintza.

– Hesi geologiko artifiziala. 0,60 m-ko lodiera eta ≤ 10-9 m/s-ko iragazkortasuna duen geruza mineral trinkotuaz osatuta egongo da, 0,15 m-ko 4 geruzen bidez eraikia. Aurrekoak bezalako babesa eskainiz gero, txandaka babes baliokidea bermatuko duen bentonitazko geokonposatua (esaterako, ezpondaren eremuetan) edo hondakin trinkotuak erabili ahal izango dira egungo zabortegiak okupatutako eremuetan.

E.2.1.– Condiciones previas al inicio de las obras de impermebilización.

Cespa G.R., S.A. deberá nombrar una dirección de obra independiente del constructor de la misma.

Asimismo deberá nombrar una empresa independiente del promotor y del constructor encargada del control de garantía de calidad de la instalación de geosintéticos para la impermeabilización del vertedero. Dicha empresa será la responsable de verificar el cumplimiento de las condiciones establecidas en el apartado E.2.2 de la presente Resolución.

Con carácter previo al inicio de las obras Cespa G.R., S.A. deberá remitir a este órgano ambiental tanto el nombramiento de la dirección técnica como el de la empresa encargada del control de garantía de la calidad de instalación de geosintéticos para la impermeabilización.

E.2.2.– Condiciones y requisitos de la ejecución de las obras de impermeabilización del vertedero.

a) La secuencia de impermeabilización del vaso de vertido será la siguiente (de arriba a abajo):

– Capa drenante de lixiviados. Podrá estar formada por una capa de material granular (preferentemente aridos secundarios de tamaño grava o arena) separada de la geomembrana subyacente mediante un geotextil antipunzonamiento y superiormente mediante una capa filtro, o bien por un geocompuesto de drenante, o por la secuencia: geotextil antipunzonamiento - georred - geotextil con misión filtro. En cualquier caso, la transmisividad de esta capa drenante estará calculada en función de su longitud de drenaje, de su pendiente y de la conductividad hidráulica saturada de los residuos, de tal manera que la transmisvidad de la capa instalada tenga un factor de seguridad (FS) ≥ 20 respecto a la transmisividad calculada y que el espesor saturado dentro de dicha capa no supere su espesor o 0,30 m, lo que sea menor. La justificación del cumplimiento de esta condición estará basado en la permeabilidad de las capas drenantes, su pendiente y longitud hasta las tuberías y la permeabilidad media de la masa de residuos. La base de estas capas drenantes tendrán una pendiente mínima del 2% hacia las tuberías de recogida de lixiviados.

– Geomembrana de polietileno de alta densidad (PEAD) de 2 mm de espesor.

– Barrera geológica artificial. Estará formada por una capa mineral compactada de 0,60 m de espesor y una permeabilidad ≤ 10-9 m/s, construida mediante 4 tongadas de 0,15 m. Alternativamente podrán utilizarse, siempre que satisfagan una protección equivalente, un geocompuesto de bentonita que garantice protección equivalente (por ejemplo en zonas de talud) o residuos compactados en las zonas ya ocupadas por el vertedero existente.

– 0,50 m-ko lodiera duen erregularizazio-geruza, Proctor Aldatua entseguaren gehienezko dentsitatearen % 95era trinkotutako hondakin hautatuaz osatua.

b) 1., 2., 3., 4. eta 5. gelaxkak geomintzez iragazgaiztuta ez daudenez, ez eta 6., 7. eta 8. gelaxketako IM aldeak ere, eta aipatu alde horiek 20 m-ko hondakinez estalita daudenez horiek iragazgaiztea ez denez egingarria, zabalera osoan zabortegiaren oinarriaren iragazgaizte-segida instalatu beharko da.

c) Aurreikusi beharrekoa da jada jarritako hondakinen masaren gainean kokatu beharreko zabortegiaren iragazgaizteak asentatzeak jasatea, horien degradazioren ondorioz eta gainean utzi beharreko hondakinen pisuaren ondorioz. Ondorioz, entseguak eginez, utzitako hondakinen eta iragazgaiztean erabili beharreko materialen deformagarritasuna zehaztu beharko da. Kalkuluen bidez justifikatuko da, asentatze horien ondorioz, zabortegiaren oinarriaren iragazgaiztearen formaren diseinuak deformazio onargarria jasango duela. Azkenik, asentatze/deformazioen kontrolerako plana diseinatuko da, egindako aurreikuspenak betetzen diren egiaztatzeko. Plan horrek erabili beharreko kontrol-metodoak, kontrol-lekuak, neurketen maiztasuna, neurketa-prozedurak eta egindako aurreikuspenak betetzearen egiaztapen-prozedura zehaztu beharko ditu.

d) Zabortegiaren egonkortasunaren azterketa egingo da. Azterketak balizko hausturak aztertuko ditu, bai hondakinen masaren bidez, bai iragazgaiztea osatzen duten geruzen alde, bai hondakinen eta zimentazio-lurraren bidez. Material desberdinetarako erabilitako parametro geoteknikoak ahal bada in situ egindako entseguetatik eskuratuko dira. Irristaduraren aurrean, segurtasun-faktorea (FS) honakoa izan behar da:

– Egoera normalean: FS ≥ 1,50.

– Ezbeharren egoeran (drainatze-sistemaren akatsa): FS ≥ 1,30.

e) Lixibiatuak biltzeko hodien sarearen diseinu hidraulikoaren, gelaxka barruko lixibiatuen ponpaketa-zuloaren eta erauzketa-ponpak geomintzaren gainean lixibiatuen mailak 0,30 m gaindituko ez dituela dioen eskakizuna betetzen dela dioen justifikazioa aurkeztu beharko da. Halaber, jasan beharko duten hondakinen kargaren aurrean, hodi horien diseinu mekanikoaren justifikazioa aurkeztu beharko da. Justifikazio hori ondorengoetan oinarrituko da: hodien ezaugarriak (barruko eta kanpoko diametroak, irekiduren –zirrikituak edo zulaketak- dimentsioa eta tartea, zimurtasuna, zapalketarekiko erresistentzia, eta abar.), jasango dituen hondakinen karga, zuloaren dimentsioak, legarren porositatea, lixibiatuak erauzteko ponparen ezaugarriak, hodi eragilea euskarri duen ezpondaren geometria, ponpaketaren emaria, ponparen

– Capa de regularización de 0,50 m de espesor formado por residuo seleccionado compactado al 95% de la densidad máxima del ensayo Proctor Modificado.

b) Puesto que no están impermeabilizadas con geomembrana las celdas 1, 2, 3, 4 y 5, ni los laterales NW de las celdas 6, 7 y 8, y no resulta factible proceder a la impermeabilización de dichos laterales al estar cubiertos con unos 20 m de residuos, deberá procederse a instalar la secuencia de impermeabilización de la base del vertedero en toda su superficie.

c) Es previsible que la impermeabilización del vertedero a situar sobre la masa de residuos ya depositados sufra asentamientos por la degradación de estos últimos y por la carga que suponen los residuos que van a depositarse encima. En consecuencia, deberá determinarse, en base a ensayos, la deformabilidad de los residuos depositados y de los materiales a emplear en la impermeabilización, y se justificará mediante cálculos que el diseño de la forma de la impermeabilización de la base del vertedero sufrirá una deformación admisible asociada a dichos asentamientos. Finalmente se diseñará un plan de control de asentamientos/deformaciones que permita verificar el cumplimiento de las previsiones realizadas. Dicho plan deberá especificar los métodos de control a utilizar, lugares de control, frecuencia de medidas, procedimientos de medida y el procedimiento de verificación del cumplimiento de las previsiones realizadas.

d) Se realizará un estudio de estabilidad del vertedero que analice las posibles roturas, tanto a través de la masa de residuos, como a favor de las capas que constituyen la impermeabilización, como a través de los residuos y el terreno de cimentación. Los parámetros geotécnicos utilizados para los diferentes materiales serán obtenidos de ensayos preferentemente realizados in situ. El factor de seguridad (FS) ante el deslizamiento deberá ser:

– En situación normal: FS ≥ 1,50.

– En situación accidental (fallo del sistema de drenaje): FS ≥ 1,30.

e) Se presentará justificación del diseño hidráulico de la red de tuberías de recogida de lixiviados, del foso de bombeo de lixiviados en el interior de la celda y que bomba de extracción cumple el requisito de que el nivel de lixiviados no superará los 0,30 m sobre la geomembrana. Así como del diseño mecánico de dichas tuberías, ante la carga de residuos que van a soportar. Dicha justificación se basará en las características de las tuberías (diámetro interior y exterior, dimensión y espaciado de las aberturas -ranuras o perforaciones-, rugosidad, resistencia al aplastamiento, etc.), la carga de residuos que van a soportar, las dimensiones del foso, la porosidad de las gravas, las características de la bomba de extracción de lixiviados, la geometría del talud sobre el que se apoya la tubería de impulsión, el caudal de bombeo, los nive-

piztu/itzali kontsignaren mailak, ponpaketa-zikloen iraupena, goratzearen garaiera, karga galerak, eta abar. Ponpaketa-ekipoa lantokian atmosfera leherkorretatik eratorritako arriskuen eraginpean dauden langileen segurtasuna eta osasunari buruzko ekainaren 12ko 681/2003 Errege Dekretuaren arabera diseinatu eta erabiliko da.

f) Ontzia prestatzeko eta zabortegia iragazgaizteko lanak burutzen diren bitartean funtsezko aldaketak ekar ditzakeen proiektuaren aldaketarik eginez gero, ingurumen organo honi jakinaraziko zaio balorazioa egin dezan, eta hala badagokio, betearazpenaren aurretik onar dezan.

E.2.3.– Zabortegiaren gelaxka bakoitza eraikitzeko obrak bukatuta sustatzaileak dituen betebeharrak.

Zabortegiaren gelaxka bakoitzaren eraikuntza bukatu ondoren, obraren zuzendariak eraikitzea ebazpen honek ezarritako baldintza eta eskakizunei egokituta eta ebazpenaren oinarri diren agiri teknikoak beteta gauzatu dela egiaztatu beharko du. Egiaztapena egiteko, obraren zuzendariak sinatutako zabortegiaren gelaxka eraikitzeko obraren amaieraren ziurtagiria bidali beharko du, ondorengo agiriekin batera:

– Eraikitzeko proiektua («as built»), dagokion elkargo ofizial profesionalak oniritzia emanda duela. Plano-jokoa eta obra-fasean egindako aldaketek ebazpen honetan eta ebazpenaren oinarri diren agirietan ezarritako baldintza eta eskakizunei dagokienez segurtasunaren murrizketa ekartzen ez dutela adierazten duen justifikazioa. Halaber, obra bukatzerakoan ikusi ezin diren elementuen eta euren ezaugarrien argazki-erreportajea egin beharko du, xehetasunen ikuspegiak nola planoan duten kokalekua azalduz, ikuspegi panoramiko orokor gisa.

– Iragazgaiztearen segidaren geomintzaren gaineko azaleraren plano topografiko bat, UTM-ETRS98 koordenatuetan eta kota absolutuetan.

– Eraikuntzaren kalitatea kontrolatzeko eta bermatzeko programaren emaitzak. Programa horrek barne hartuko ditu eginiko lanak deskribatzen dituen memoria, emaitzak eta ondorioak laburbiltzen dituzten taulak barne; horrez gain, esparruko eta laborategiko emaitza analitiko guztiak jasotzen dituzten eranskinak (azken horien txosten osoak hartuko dira) eta laginketa-puntuen kokapena plano takimetrikoan.

Agiri horiek ingurumen organoari aurkeztuko zaizkio, onar ditzan. Aurkeztutako agiriak egokiak direla ziurtatu eta egiaztatzeko bisita egin ondoren, ingurumen organoak alderdi horien inguruko ziurtagiria egingo du.

les de consigna de encendido/apagado de la bomba, la duración de los ciclos de bombeo, altura de elevación, pérdidas de carga, etc. El equipo de bombeo estará diseñado y se utilizará de conformidad con el Real Decreto 681/2003, de 12 de junio, sobre la protección de la salud y la seguridad de los trabajadores expuestos a los riesgos derivados de atmósferas explosivas en el lugar de trabajo.

f) Cualquier modificación del proyecto que surja durante el transcurso de las obras de preparación del vaso e impermeabilización del vertedero que pudiera conllevar cambios sustanciales deberá ser comunicada a este órgano ambiental para su valoración, y en su caso, aprobación previa a su ejecución.

E.2.3.– Obligaciones del promotor una vez finalizadas las obras de construcción de cada celda del vertedero.

Una vez finalizadas la construcción de cada celda del vertedero, el director de esta obra deberá acreditar que la misma ha sido realizada ajustándose a las condiciones y requisitos establecidos en la presente Resolución y en la documentación técnica que sirve de fundamento a la misma. La acreditación se realizará mediante la expedición de un certificado de fin de obra de la construcción de la celda del vertedero suscrito por dicho director de obra, adjuntando la siguiente documentación:

– Proyecto Constructivo («as built»), visado por el correspondiente colegio oficial profesional, con su juego de planos y justificación de que los cambios introducidos en la fase de obras no suponen una disminución en la seguridad respecto a las condiciones y requisitos establecidos en esta Resolución y en la documentación que sirve de fundamento a la misma, así como un reportaje fotográfico de aquellos elementos y sus características que no sean visibles al finalizar la obra, incluyendo tanto vistas de detalle, con indicación de su ubicación sobre plano, como vistas panorámicas generales.

– Un plano topográfico, en coordenadas UTM-ETRS98 y cotas absolutas, de la superficie superior de la geomembrana de la secuencia de impermeabilización.

– Los resultados del Programa de Control y Garantía de Calidad Constructiva, el cual incluirá una memoria describiendo los trabajos realizados, con tablas-resumen de los resultados y conclusiones, así como unos anexos que recojan todos los resultados analíticos de campo y laboratorio (de estos últimos se incluirán los informes completos) y la localización de los puntos de muestreo sobre plano taquimétrico.

Esta documentación se presentará ante el órgano ambiental para su aprobación. Una vez constatada la adecuación de la documentación presentada y girada la oportuna visita de comprobación, el órgano ambiental procederá a emitir documento acreditativo de tales extremos.

E.3.– Instalazioaren jardunerako baldintza orokorrak.

E.3.1.– Hondakinak hartu eta ikuskatzeko baldintzak eta kontrolak.

Hondakinak deuseztatu daitezen zabortegian utzi ahal izango dira, baldin eta aurretiazko tratamendua jaso badute edo horien baliotzea teknika, ekonomia edo ingurumenaren aldetik bideragarria ez dela behar bezala justifikatzen bada. Ondorioz, hondakinnahasketak onartzen badira, zabortegira iritsi eta baliotu daitezkeen hondakinetatik bereizi behar dira eta dagokien banakako edukiontzietan gorde, helburu horretarako balioztagune baimendura eraman arte. Helburu horretarako eta egungo egoeran, honako hondakinak baliotu daitezkeela uste da: papera eta kartoia, metalak, eraikuntza eta eraispeneko hondakinak, beira, zura, plastikozko eta metalezko ontziak, erabiltzen ez diren pneumatikoak, kanpoko diametroa 1.400 mm baino txikiagoa dutenak, bizikletenak salbu. Zerrenda handitu egingo da, hondakin berriak baliotzeko kudeatzaile baimenduak sortzen diren neurrian.

Zabortegian ezabatu daitezen onartutako hondakinak, hondakinak baliotzeko eta ezabatzeko eragiketak eta Hondakinen Europako Zerrenda argitaratzen dituen otsailaren 8ko MAM/304/2002 Aginduaren bidez argitaratutako Hondakinen Europako Zerrendaren arabera sailkatuta daude eta ebazpen honetako I. eta II. eranskinean adierazitakoak dira.

Ondorengo baldintzak dituzten hondakinak ez dira inolaz ere onartuko:

1.– 50 gradu zentigradu baino tenperatura handiagoa duten hondakinak.

2.– % 65eko hezetasuna baino handiagoa duten hondakinak.

Hondakin ez-arriskutsu horiek, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Organoak «Euskal Herriko zabortegietan hondakinak onartzeko irizpideak eta prozedurak» izeneko agirian ezarritako arauetan hondakin ez-arriskutsuen zabortegietarako ezarritako onarpen-irizpideak bete beharko dituzte.

Nolanahi ere, hondakinak onartu ahal izateko, lixibiatze-saiakuntzak egin beharko dira, UNE-EN 12457-4 arauaren arabera «Hondakinak karakterizatzea. Lixibiatzea. Hondakin pikortsuak eta lohiak lixibiatzeko adostasun-saiakuntza. 4. zatia: 10 l/kg-ko likido/solido erlazioa duen etapa baten lotekako saiakuntza, 10 mm-tik beherako partikula-tamaina duten materialetarako (tamaina-txikitzea izan edo ez)».

Hainbat parametroren kasuan ezarritako mugak gaindituko balira, perkolazio-entseguak onartu ahal izango dira, NEN 7343 arau holandarraren arabera. Nolanahi ere, hondakinen onarpena nola entseguak

E.3.– Condiciones generales para el funcionamiento de la instalación.

E.3.1.– Condiciones y controles para la recepción e inspección de residuos.

Sólo podrán depositarse en el vertedero para su eliminación residuos que hayan sido objeto de algún tratamiento previo o para los cuales quede debidamente justificado que su valorización no resulta técnica, económica o medioambientalmente viable. En consecuencia, si se aceptan mezclas de residuos deberán separarse aquellos residuos valorizables que lleguen al vertedero y almacenarse en sus contenedores individuales correspondientes hasta su traslado a valorizador autorizado para tal fin. A tal efecto y en la situación actual se consideran valorizables residuos tales como el papel-cartón, los metales, los residuos de construcción y demolición, el vidrio, la madera, los envases plásticos y metálicos, los neumáticos fuera de uso de diámetro exterior inferior a 1.400 mm, excepto los de bicicletas. Esta relación se verá ampliada en la medida que surjan gestores autorizados para la valorización de nuevos residuos.

Los residuos admisibles en el vertedero para su eliminación, clasificados de acuerdo con la Lista Europea de Residuos publicada mediante la Orden MAM/304/2002, de 8 de febrero, por la que se publican las operaciones de valorización y eliminación de residuos y la Lista Europea de Residuos son los señalados en el anexo I y II de la presente Resolución.

En ningún caso se admitirán residuos en las siguientes condiciones:

1.– Residuos a una temperatura superior a 50 grados centígrados.

2.– Residuos con una humedad superior al 65%.

Dichos residuos no peligrosos deberán cumplir los criterios de admisión para vertederos de residuos no peligrosos especificados en las directrices establecidas por el Órgano Ambiental de la Comunidad Autónoma del País Vasco en el documento «Criterios y procedimientos de admisión de residuos en los vertederos del País Vasco».

En todo caso, para que los residuos puedan ser aceptados deberán someterse a ensayos de lixiviación realizados según la norma UNE-EN 12457-4 «Caracterización de residuos. Lixiviación. Ensayo de conformidad para la lixiviación de residuos granulares y lodos. Parte 4: Ensayo por lotes de una etapa con una relación líquido-sólido de 10 l/kg para materiales con un tamaño de partícula inferior a 10 mm (con o sin reducción de tamaño)».

En el caso de que para determinados parámetros se superen los límites establecidos podrán admitirse ensayos de percolación según la norma holandesa NEN 7343. En cualquier caso, tanto la admisión de

aurretiaz aipatutako ingurumen organoak ezarritako arauak jarraituz gauzatu beharko dira.

Onargarriak ez diren hondakinak biltegiratzeko gune bat izango da, hormigoizko oinarria eta urak biltzekoa dituena.

Zabortegiaren perimetro-itxitura izan beharko da, ustiapenaren kanpoko langileak sar ez daitezen. Plastiko arinak eta partikulatutako materiala sakabanatzea murriztuko duen elementuaren bidez osatuko da itxitura.

Instalazioak sarrera bakarra izango du, eta sarrerak oztopo kanadarra izango du, ganadua eta kanidoak barrura sar daitezen eragozteko.

Cespa G.R. SA enpresak hilero hondakinen onarpen-agiriak eta jarraipen eta kontrolerako agiriak ondo beteta bidali beharko dizkio ingurumen organoari, hondakin geldo eta geldotuen kudeaketari buruzko arazoaren 2ko 423/1994 Dekretuaren 17., 18. eta 19. artikuluetan ezarritakoa betez. Ahal bada, agiri horiek transakzio elektroniko bidez bidaliko zaizkio ingurumen organoari, IKS-L03 Sistemaren erakundeentzako bertsioa erabiliz. Sistema informatiko hau erabiliz, kudeatzaileak ez ditu aurretik aipatutako agiriak hilero bidali beharrik izango.

Cespa G.R. SA enpresak isuritako edo baimendutako hondakinen balioztatzaileari igorritako hondakinen laburpena urtero bidali beharko dio ingurumen organoari formatu elektronikoan, honako hauek adieraziz:

– Hondakinaren sailkapena, hondakinak baliotzeko eta ezabatzeko eragiketak eta Europako Hondakinen Zerrenda argitaratzen dituen otsailaren 8ko MAM/304/2002 Aginduaren bidez argitaratutako Europako Hondakinen Zerrendaren arabera.

– Hondakinaren kopurua (tonaka).

– Hondakinaren sortzailea.

– Helmugako hondakinen kudeatzailea.

E.3.2.– Lixibiatuen sorkuntza murrizteko ustiapenaren baldintzak.

Euri-uren eragin zuzena jasan dezaketen hondakinen gehienezko azalerak ez du inolaz ere 10.000 m²-ko balioa gaindituko.

Ustiaketa Planaren moldaketa bat aurkeztuko da hiru hilabeteko epean eta honako hauek jasoko ditu: isurketa-gelaxken mugaketa, gelaxken iragazgaiztutako azaleraren topografia, plana betetzeko agindua, lixibiatuen drainatzeen trazadura, gas-tximinien kokapena, gelaxken barrualdera sartzeko barruko bideak, gainazaleko urak husteko dituen perimetro-arekak, gelaxken ontziaren iragazgaiztu beharreko azalerak eta behin betirako edo aldi baterako zigilatu beharreko

residuos como los ensayos deberán realizarse siguiendo las directrices establecidas por el órgano ambiental anteriormente mencionadas.

Se dispondrá de un área de almacenamiento de residuos no aceptables, con base hormigonada y recogida de aguas.

Se deberá disponer de cerramiento perimetral del vertedero que impida el acceso al personal ajeno a la explotación, complementándose el cerramiento con un elemento que minimice la dispersión de plásticos ligeros y material particulado.

Se dotará a la instalación de una única entrada, que estará provista de una barrera canadiense, con el objetivo de evitar la entrada de ganado y cánidos al recinto.

Mensualmente Cespa G.R., S.A. deberá remitir al órgano ambiental los documentos de aceptación de residuos y los documentos de seguimiento y control debidamente cumplimentados, conforme a lo establecido en los artículos 17, 18 y 19 del Decreto 423/1994, de 2 de noviembre, sobre gestión de residuos inertes e inertizados. Dichos documentos serán enviados al órgano ambiental preferentemente mediante transacción electrónica a través de la versión entidades del Sistema IKS-L03. La utilización de este sistema informático exime al gestor de la remisión mensual de la documentación anteriormente mencionada.

Anualmente Cespa G.R., S.A. deberá remitir al órgano ambiental en formato electrónico un resumen de los residuos vertidos o enviados a valorizador de residuos autorizado con indicación de:

– Clasificación del residuo según la Lista Europea de Residuos publicada mediante la Orden MAM/304/2002, de 8 de febrero, por la que se publican las operaciones de valorización y eliminación de residuos y la Lista Europea de Residuos.

– Cantidad de residuo (en toneladas).

– Productor del residuo.

– Gestor de residuos de destino.

E.3.2.– Condiciones de explotación para minimizar la generación de lixiviados.

La superficie máxima de residuos expuesta a la acción directa de las aguas de lluvia no excederá en ningún momento los 10.000 m².

En un plazo de tres meses se presentará un modificado del Plan de Explotación, que muestre la delimitación de celdas de vertido, la topografía de la superficie impermeabilizada de las celdas, su orden de ejecución, el trazado de los drenajes de lixiviados, la localización de las chimeneas de gases, los viales internos de acceso al interior de las celdas, sus cunetas perimetrales de evacuación de las aguas superficiales, las superficies a impermeabilizar del vaso de las celdas

akaberako topografiara iritsi diren eremuak, gelaxken betetze-faseak gauzatzeko kronograma eta eraikitzeko xehetasunak. Horrekin batera, dagokion eraikitzeko proiektua (memoria, kalkulu justifikatzaileak dituzten eranskinak, planoak, baldintza teknikoen agiria, aurrekontua), eraikitzeko proiektuaren segurtasun eta osasun proiektua, geosintetikoen eta trinkotutako geruza mineralen eraikitze-kalitatearen berme-plana gehitu beharko dira. Perimetro-areka instalatu beharko zaio zabortegiaren akaberako azalerari, 500 urteko birgertatze-aldiari dagozkion uhaldiak hustea ahalbidetuko duena. Ustiaketan zehar, iragazgaiztutako gelaxkak inguratuko dituzten eta dagozkien uhaldiak hustea ahalbidetuko duten aldi baterako perimetro-kanalak instalatuko dira, gutxienez, 10 urteko birgertatze-aldiari begira.

Zabortegiko gelaxka baten zigilatzea ez da 90 egun baino gehiagoko epean abiatuko, aurreikusitako akaberako kotetara iristen den unetik kontatzen hasita. Zigilatze hau aldi baterako zigilatzea izango da, azaleraren gainean proiektuak ondorengo faseetan hondakinak uztea aurreikusten duenean, edo behin betiko zigilatzea izango da, aipatu azaleraren gainean akaberako zigilatzea ezarri behar denean. Kanpoko arrazoiak direla-eta (meteorologikoak, materialaren erabilgarritasuna, eta abar) akaberako zigilatzea epe horren barruan hastea ezinezkoa bada, aldi baterako zigilatzea ezarriko da, trinkotutako lurrez edo geomintz batez osatua, iragazketa murriztuko duena eta perimetro-kanaletara zuzenduko diren ur garbiez osatutako gainazaleko jariatzea osatzea ahalbidetuko duena. Nolanahi ere, behin betiko zigilatzea 9 hilabete baino lehen abiatuko da eta 12 hilabete baino lehen bukatuko da, hondakinak aurreikusitako gelaxkaren akaberako kotetara iristen diren unetik kontatzen hasita.

E.3.3.– Baldintzak isurketaren arloan.

E.3.3.1.– Isurketen sailkapena, jatorria, ingurune hartzailea eta kokapena.

Isurketa sortzen duen jarduera mota nagusia: hondakin ez-arriskutsuen zabortegia.

Jarduera-taldea: 0-Zerbitzuak.

EJSN: 92150. Zabor eta hondakinak erraustu eta ezabatzeko zerbitzua.

y a sellar de modo definitivo o temporal de las zonas que han alcanzado su topografía final, un cronograma de ejecución de las fases de ejecución de las celdas y sus detalles constructivos. Todo ello acompañado de su correspondiente proyecto constructivo (memoria, anexos con sus cálculos justificativos, planos, pliego de condiciones técnicas, presupuesto), proyecto de seguridad y salud del proyecto constructivo, plan de garantía de calidad constructiva de los geosintéticos y de las capas minerales compactadas. Deberá instalarse una cuenta perimetral a la superficie final del vertedero que permita evacuar las crecidas correspondiente a un periodo de retorno de 500 años. Durante la explotación se instalarán canales perimetrales temporales que rodeen las celdas impermeabilizadas y que permitan evacuar las crecidas correspondientes, al menos, a un periodo de retorno de 10 años.

El sellado de una celda del vertedero se iniciará en un plazo no superior a 90 días a contar desde el momento en que se alcancen sus cotas finales proyectadas. Este sellado será un sellado temporal en el caso de que sobre dicha superficie el proyecto prevea la instalación de residuos en fases posteriores o bien un sellado definitivo si sobre dicha superficie se debe instalar el sellado final. En caso de que no pudiera iniciarse en dicho plazo el sellado final por causas ajenas (meteorológicas, disponibilidad de material, etc.) se instalará un sellado temporal, formado por tierras compactadas o un geomembrana, que reduzca la infiltración y permita la formación escorrentía superficial constituida por aguas limpias que se dirigirán hacia los canales perimetrales. En cualquier caso, el sellado definitivo se iniciará antes de 9 meses y finalizará antes de 12 meses a contar desde el momento en que los residuos alcancen las cotas finales de la celda proyectada.

E.3.3.– Condiciones en materia de vertido.

E.3.3.1.– Clasificación, origen, medio receptor y localización de los vertidos.

Tipo de actividad principal generadora del vertido: vertedero de residuos no peligrosos.

Grupo de actividad: 0-Servicios.

CNAE: 92150. Servicio de incineración y eliminación de basuras y desechos.

Hondakin-ur mota	Isurketaren jatorria	Ingurumen hartzailea	Isurketa-puntuaren UTM koordenatuak
Lixibiatuak	Lixibiatuen araztegia Ur beltzak Gurpilak garbitzeko gailua	Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren saneatze-kolektore nagusia	X: 559.496 Y: 4.765.586

Tipo de aguas residuales	*Procedencia del vertido*	*Medio receptor*	*Coordenadas UTM del punto de vertido*
Lixiviados	*Depuradora lixiviados* *Fecales* *Lavaruedas*	*Colector de saneamiento general del Consorcio de Aguas de Gipuzkoa*	*X: 559.496* *Y: 4.765.586*

E.3.3.2.– Gehienez isur daitezkeen emari eta bolumenak.

a) Lixibiatu araztuak.

Orduko puntako emaria	4,17 l/s
Eguneko gehienezko bolumena	80 m^3
Urteko gehienezko bolumena	22.800 m^3

E.3.3.3.– Isurtzeko muga-balioak.

«Gipuzkoako Ur Kontsortzioko hodi biltzailera doazen isurketei buruzko araudian» agertzen diren mugak eta baldintzak bete behar izango ditu azken isurketak, erakunde horrek aintzat har ditzakeen zehaztapen, aldaketa eta salbuespenekin.

E.3.3.4.– Araztu eta husteko instalazioak.

Ebazpen honen datatik aurrera hiru hilabeteko epean, lixibiatuen eta langileen erabilera higienikorako uren isurketak eskualdeko saneamendu-sistema orokorrera lotu behar dira derrigorrez, horien isurketa ibilgu publikora egitea bertan behera utziz.

Aipatu epe horren barruan, honako agiriak emango dira:

– Proiektu teknikoa, agiri bateginean honakoak deskribatuko ditu: arazketa, automatismo eta kontrolaren tratamendu-lerroa eta prozesu eta elementu nagusiak behin betikoz azalduak, egungo instalazioetako aldaketa zehatzekin.

– Gipuzkoako Ur Kontsortzioak kolektorera isurtzeko emandako baimenaren kopia.

– Saneatze orokorrerako hartunea eta ibilgura isurketak ez egitearen adierazpen egiaztatua.

– Isurketa-analisiak, jardueraren parametro esanguratsu guztiak barne.

Lixibiatu-putzuetan ondoko mailak ezarri eta markatuko dira:

– Ezohiko gehienezko maila (EGM). Zuloaren gainezkatze-mailatik behera 20 cm-ra kokatutako mailari dagokio.

Ohiko gehienezko maila (OGM). Lixibiatuek ohiko ustiapen-baldintzetan hartu dezaketen gehienezko maila da. Kasu horretan, zuloen gehienezko ahalmenaren % 80ari dagokio (ezohiko gehienezko mailaren azpitik); hala, 200 m^3-ko soberakin-ahalmena izango

E.3.3.2.– Caudales y volúmenes máximos de vertido.

a) Lixiviados depurados.

Caudal punta horario	4,17 l/s
Volumen máximo diario	80 m^3
Volumen máximo anual	22.800 m^3

E.3.3.3.– Valores límites de emisión.

El vertido final deberá cumplir los límites y condiciones que figuran en el «Reglamento Regulador del vertido a Colector del consorcio de Aguas de Gipuzkoa» con las precisiones modificaciones o salvedades que dicho organismo pueda considerar.

E.3.3.4.– Instalaciones de depuración y evacuación.

En un plazo de tres meses a partir de la fecha de la presente Resolución los vertidos de lixiviados y aguas de uso higiénico del personal deberán acometerse al sistema general de saneamiento comarcal, suspendiéndose su vertido a cauce público.

Dentro de dicho plazo se aportará la siguiente documentación:

– Proyecto técnico que describa en un documento unificado la línea de tratamiento y principales procesos y elementos de depuración, automatismos y control definitivamente contemplados, con las modificaciones precisas en las actuales instalaciones.

– Copia de la autorización de vertido a colector del Consorcio de Aguas de Gipuzkoa.

– Declaración acreditada de la acometida al saneamiento general y eliminación de los vertidos al cauce.

– Analítica de vertido incluyendo todos los parámetros significativos de la actividad.

En las balsas de lixiviados se fijarán y marcarán los siguientes niveles:

– Nivel máximo extraordinario (NME). Corresponderá a un nivel situado 20 cm por debajo del nivel de desborde de la balsa.

– Nivel máximo ordinario (NMO). Es el nivel máximo que podrán alcanzar los lixiviados en condiciones normales de explotación. En este caso se define como el correspondiente al 80% de la capacidad máxima de las balsas (por debajo del nivel máximo

da ezohiko egoerei aurre egin ahal izateko (eurite biziak, araztegian geldiuneak, etab.).

– Ohiko gehienezko maila gaindituko balitz, gorabehera hori berehala jakinaraziko zaio ingurumen organoari, hori sortu duten arrazoiak eta ezohiko gehienezko maila ez gainditzeko hartu diren neurriak.

Ebazpen honen datatik kontatzen hasita hiru hilabeteko apean, eraikitako hormigoi-zuloaren diseinua aurkeztuko da, honako hauek barne hartuta: planoak, kalkulu mekanikoak, erabilitako hormigoiaren ezaugarriak eta eraikuntza-kalitateko berme-kontrolaren emaitzak. Barnealdeak iragazgaiztua izan behar du.

Kamioien gurpilak garbitzeko sistemaren ezaugarriak adierazi beharko dira. Sistema sareta eta arrabolez osatuta egon beharko da, haren gainean kamioien gurpilak pasatu ahal izateko, aspertsore batzuen bidez botatako presiozko uraren bidez garbitzen diren bitartean. Garbiketako ura birziklatu eta lohiak modu automatikoan erauziko dira (Arquimedesen torlojuaren edo antzekoaren bidez). Gurpilak garbitzeko sistemaren saretak edo arrabolek gutxienez garbitu beharreko gurpil handienaren zirkunferentziaren luzera izan beharko dute.

Gurpilak garbitzeko sistemaren gainezkaldi eta ihesak jaso eta zabortegiko masara eramango dira lixibiatu gisa ebakuatzeko; ezingo dira ibilgura bota.

Gutxienez, ondorengo kontrol-kutxetak jarriko dira; kutxeta horiek isurketen lagin esanguratsuak lortzeko beharrezko ezaugarri guztiak izango dituzte:

– Zabortegi zaharreko lixibiatuen biltze-kutxeta eta lixibiatu-zulo bakoitzaren sarreraren aurretik gelaxka berriak.

– Lixibiatu araztuen irteera.

– Ondorengo kontrolerako gailuak instalatuko dira gutxienez:

a) Emari-neurgailua edo ordu-kontagailu bidez, etab. neurtzeko sistema, zabortegi zaharreko lixibiatuak jasotzeko sarean eta emari-neurgailua eta konduktibitate-neurgailua gelaxka berrien lixibiatuetarako.

b) Ur araztuetarako emari-neurgailua.

c) Ph neurgailua eta ur tratatuen azken kontroleko konduktibitate-neurgailua, dagozkien alarma-sistemak, neurketen tokiko adierazpena eta biltegiratze jarraikia euskarri informatikoan dituena.

d) Plubiometroa.

extraordinario), de modo que existan unos 200 m^3 de capacidad remanente para hacer frente a situaciones extraordinarias (lluvias intensas, paradas en la planta de depuración, etc.).

En caso de superarse el nivel máximo ordinario se comunicará inmediatamente al órgano ambiental este hecho, las causas que lo han motivado y las medidas que se han adoptado para que no se supere el nivel máximo extraordinario.

En un plazo de tres meses a partir de la fecha de la presente Resolución deberá presentarse el diseño de la balsa de hormigón construida, incluidos sus planos, cálculos mecánicos, características del hormigón utilizado y los resultados de control de garantía de calidad constructiva. Su interior deberá estar impermeabilizado.

Deberá disponerse de un sistema de lavado de ruedas constituido por una rejilla o rodillos sobre la cual pasen las ruedas de los camiones mientras son lavadas mediante agua a presión eyectada por unos aspersores, con reciclado del agua de lavado y extracción de los lodos de modo automático (mediante tornillo de Arquímedes o similar). La rejilla o rodillos del sistema de lavado de ruedas deberán tener una longitud por lo menos equivalente a la longitud de la circunferencia de la mayor rueda a lavar.

Los reboses y fugas del sistema lava-ruedas se recogerán y conducirán a la masa del vertedero para evacuarlos como lixiviados, no autorizándose su vertido a cauce.

Se dispondrá como mínimo de las siguientes arquetas de control, que deberán reunir las características necesarias para poder obtener muestras representativas de los vertidos:

– Arqueta de recogida de los lixiviados procedentes del vertedero antiguo y celdas nuevas antes de la entrada a cada balsa de lixiviados.

– Salida de lixiviados depurados.

– Se instalarán como mínimo los siguientes dispositivos de control:

a) Caudalímetro o sistemas de medición por cuenta horas, etc., en la red de recogida de lixiviados del vertedero antiguo y caudalímetro y conductivímetro para los lixiviados de las nuevas celdas.

b) Caudalímetro para el vertido de aguas depuradas.

c) pHmetro y conductivímetro de control final de las aguas tratadas con los correspondientes sistemas de alarma, indicación local de las medidas y almacenamiento en continuo en soporte informático.

d) Pluviómetro.

e) Lurrazpiko uren kontrolerako piezometroak. Beren kokapena E.3.5 atalean adierazten dira.

Emari-neurgailuek, pH-neurgailuek, konduktibitate-neurgailuek eta plubiometroak erregistratutako datuak 10 minuturo gordeko ditu formatu elektronikoan.

